

NAZIOARTEKO EGOERA (2024ko martxoa) Prensa oharra

SARRERA

Lan honen helburua nazioarteko egoerarekin lotutako zenbait gairi buruz herritarrek dituzten iritzi eta jarrerak aztertzea izan da. Landa-lana 2024ko otsailaren 5etik 9ra egin zen.

Gehiengoaren ustez nazioarteko egoera txarra da

Euskadiko biztanle gehienek (% 79) uste dute munduko beste lekuetan gertatzen denak eragin handia edo nahikoa duela bere bizitza pertsonalean, eta % 21ek uste du eragin txikia duela edo batere ez diola eragiten. Azken urteotan, gero eta zabalduago dago gertakari horien eraginaren pertzepzioa, izan ere, 2016an % 71k adierazi zuten.

Euskadiren egoera orokorra Espainiakoa eta Europar Batasuneko bano positiboago baloratzen da: % 54k uste du ona dela Euskadin, % 27k Espainian eta % 31k Europar Batasunean. Nazioarteko egoerari dagokionez, oro har, % 4k soilik esan du "ona" dela; % 29k, berriz, "hala-holakoa" dela, eta % 65ek "txarra" edo "oso txarra" dela. Gainera, hamarretik lauk (% 44) uste dute nazioarteko egoerak okerrera egingo duela, % 29k berdin jarraituko duela eta % 23k hobera egingo duela. Egoera okerrera joango den ustea zabalduago dago orain, 2016ko (% 30) eta 2020ko (% 32) neurketetan baino.

Nazioarteko politikak interes handia edo nahikoa pizten du herritarren % 55en artean, eta % 45ek interes gutxi edo batere interesik ez duela dio.

Hamar urte barru immigrazio gehiago, herrialdeen arteko desberdintasun handiagoak eta Txinaren eragin handiagoa aurreikusten dira

Euskal herritarren iritziak, mundu-mailako arazo garrantzitsuenak honako hauek dira: gatazkekin, gerrekin, inperialismoarekin, geopolitikarekin eta terrorismoarekin lotutakoak (% 75ek aipatu ditu hiru arazo nagusien artean), pobrezia, gosea eta herrialdeen arteko desberdintasunak (% 29), klima-aldaketa, lehorteak eta beste ingurumen-arazo batzuk (% 27), egoera ekonomikoarekin eta enpleguarekin lotutako arazoak (% 27), eta politikarekin lotutakoak, hala nola diktadurak, populismoak, ultraeskuina eta demokraziaren krisia (% 19). Beste arazo batzuk ere aipatzen dira, hala nola immigrazioa eta errefuxiatuen krisia (% 10), balioen krisia, intolerantzia, indibidualismoa, arrazakeria, etab. (% 9), desberdintasun sozialak eta botere-desberdintasunak (% 8), eta beste arazo asko, horietako bakoitza biztanleriaren % 5ek baino gutxiago aipatua.

Hamar urte barru munduan izango diren arazo garrantzitsuenei buruz galdetuta, euskal biztanleriak gaur egun identifikatzen dituen antzeko arazoak aipatzen ditu, zenbait desberdintasunekin bada ere: Hamar urte barrurako aurreikuspenetan askoz gutxiago aipatu dira gatazkekin, gerrekin, inperialismoarekin, geopolitikarekin eta terrorismoarekin lotutako arazoak (% 47, orain % 75en aldean), eta apur bat gutxiago politikarekin lotutakoak, hala nola diktadurak, populismoak, ultraeskuinak eta demokraziaren krisia (% 10, orain % 19en aldean). Aitzitik, hamar urte barru, klima-aldaketari, lehortei eta bestelako ingurumen-arazoei lotutako arazo gehiago aurreikusten dira (% 47, egungo % 27aren aldean), baita teknologiarekin, adimen artifizialarekin, sare sozialekin eta desinformazioarekin lotutako arazoak ere (% 6, egungo % 1aren aldean).

Bestalde, EAEko biztanle gehienek uste dute hamar urte barru orain baino jende gehiagok migratuko duela herrialde pobreetatik aberatsetara (% 75), eta herrialdeen arteko aberastasunagatiko desberdintasunak orain baino handiagoak izango direla (% 70). Iritziak banatuago daude nazioarteko gerra eta gatazkei dagokienez; % 48k uste du hamar urte barru orain baino gehiago izango direla, %35ek orain hainbat eta % 12k gutxiago izango direla. Era berean, iritzi desberdinak daude klima-aldaketaren aurkako borrokan aurreikusten diren nazioarteko akordioei dagokienez; % 48k uste du orain baino akordio gehiago egongo direla, % 38k orain hainbat eta % 11k gutxiago. Azkenik, NBERen eraginkortasunari dagokionez, % 18k uste du hamar urte barru nazioartean paper aktiboago eta eraginkorragoa izango duela, % 52k ez du uste aldatuko denik, eta % 24k uste du gaur egun baino eraginkortasun gutxiago izango duela.

Era berean, zenbait herrialdek hamar urte barru munduan izango duten eraginari buruz galdetu zaie EAEko biztanleei; Txina, herrialde arabiarrek eta India dira munduan duten eragina handituko dutela gehien uste den herrialdeak (% 75, % 55 eta % 49, hurrenez hurren). Ondoren, Japonia (% 36), Estatu Batuak (% 35), Errusia (% 28), Europar Batasuna (% 23) eta, azkenik, Latinoamerikako herrialdeak (%19) daude.

Gehiengoak uste dut EBN egotea ona dela Euskadirentzat

EAEko biztanleen % 55ek adierazi du interes handia edo nahikoa duela Europarekin lotutako gaietan.

Europar Batasunak euskal herritarrei iradokitzen dien irudiari dagokionez, biztanleriaren % 41ek oro har irudi oso edo nahiko positiboa du, % 41ek irudi neutroa eta % 16k nahiko edo oso negatiboa.

Euskal herritarren % 66k uste du Europar Batasuneko kide izatea ona dela Euskadirentzat, eta % 70ek Europar Batasunean hartzen diren erabakiek eragin handia edo nahikoa dutela euskal herritarren bizitzan.

Euskadiko biztanleriaren % 58 oso edo nahiko baikorra da Europar Batasunaren etorkizunari dagokionez.

EBk Gazako gatatzari emandako erantzunarekin adostasunik ez

Euskal herritarren % 68 oso edo nahiko kezkatuta dago Ukrainako gerrarekin, eta % 75 Gazako egoera eta Ekialde Hurbileko gerrarekin.

Bi gatatzeki buruzko albisteen jarraipena antzekoa da: % 58k dio Ukrainari buruzko albistek asko edo nahiko jarraitzen dituela, eta % 64k Gazari buruzkoak.

Hala ere, Europar Batasunak bi gatatzka horietan duen jardunari buruzko iritzia zertxobait gehiago bereizten da: biztanleriaren % 45 erabat ados edo nahiko ados dago Europar Batasunak Errusiak Ukraina inbaditzeari emandako erantzunarekin, eta % 26k soilik uste du gauza bera Europar Batasunak Gazaren egoerari emandako erantzunari buruz.

Ikerketa honen **fitxa teknikoa** zabaldu den txostenean kontsulta daiteke. Lagina 18 urtez gorako herritarrei zuzendua, EAE osorako 1.027 lagunek osatua da. Elkarrizketak telefonoz egin dira. Lagin honi dagokion lagin errorearen estimazioa $\pm\%$ 3,12koa da EAE osorako, % 95,5eko konfiantza mailarako, $p=q=0,5$ izanik. Informazio bilketa 2024ko otsailaren 5a eta 9a bitartean egin zen.

OHARRA: Txosten osoa Prospekzio Soziologikoen Kabinetearen webgunean eskuragarri dago:

<http://www.euskadi.eus/ikerketa-soziologikoak>

Vitoria-Gasteiz, 2024ko martxoaren 1a